

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa. Onestea alda dadila Kontseiluaren abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretua, sozietateen zergaren arautegia onetsi zuena

Sozietateen gaineko zergaren arautegiak arautzen du zergapekoak eskatuta lotutako eragiketegi buruzko akordioa egiteko prozedura.

Foru dekretu honen xedea da informazio betebeharrak gehigarriak ezartzea, balorazio proposamenaren ebazpenarekin informazio trukea egin behar denean beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindikoa beste erakunde batzuekin, elkarri laguntzeko baliabide bat dela bide.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea sozietateen gaineko zergaren arautegia, abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia

Sozietateen gaineko zergaren arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren 24. artikuluko 2. apartatua aldatu da, eta aurrerantzean honela idatzita egongo da:

“2. Eskaerarekin batera Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan aipatzen diren agiriak aurkeztu behar dira, kasuan kasukoak eta balorazio proposamenari aplikatu ahal zaizkion heinean.

Balorazio proposamenaren ebazpenarekin informazio trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindikoa beste erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolahi ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga administrazioak ofizios hartu dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

a) Erakunde eskatzailea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo, halakorik izan ezean, kode baliokideak.

b) Balorazio proposamenaren aipatutako enpresa jardueraren deskripzioa, edo egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio segidena. Edonola ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauak eta interes publikoa.

c) Balorazio proposamenaren jasotako transakzioek edo eragiketek eragin liezaiekeen estatuak.

d) Balorazio proposamenaren ebazpenak eragin liezaiekeen beste estatu batzuetako pertsona egoiliarak.

e) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.”

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA. Arauak emateko gaikuntza

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren diren xedapen guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ